


**LIBURUA**

**Izenburua:** 'Eguberria'. **Egilea:** Juan Kruz Igerabide. **Marrazkiak:** Elena Odriozola. **Orrialde kopurua:** 80 orrialde. **Argitaletxea:** Nerea.

**Juan Kruz Igerabide**

IDAZLEA

«Ikasiz gozatu dut. Horixe bera transmititu nahiko nuke»

**E**guberria garai berezia da, garai magikoa. Urte sasoi horri eskaini dizkiote euren hitzak eta irudiak Juan Kruz Igerabide idazleak eta Elena Odriozola marrazkilariak, eta liburu eder bat osatu dute: *Eguberria*. Ohitura horren atzean dauden sekretuak, ohiturak eta ospakizunak argitara ematen dira liburuan. Neskatila baten begietatik kontaktzen da istorioa. Bilobak amonaren laguntza du Eguberriko solstizioaren ospakizunetako usadio, kantu eta ipuinak biltzeko eta kontatzeko.

Igerabideren eta Odriozolaren lan mardul eta oporari Espainiako Edizio Sari Nazionala eman zioten ekain hasieran.

**Espainiako Edizio Sari Nazionala eskuratu berri duzue liburuarekin. Espero zenuen halakorik? Ilusioa egin dizu?**

Espero ez, noski; ez nuen sari horren berririk, ez eta liburu hartarako aukeratua zegoenik ere. Hala, sarietan, zorteak eragin handia izaten du. Gezurra esango nuke ilusioa egin ez didala esango banu, baina sariak gehitxo mitifikatzen dituen gizarite honetan, pixka bat erlatibizatzea ere komeni da.

**Ez da liburu arrunt bat. Ohitura, kanta eta usadioen bilduma txiki bat da, ezta?**

Badago halako bilduma bat, bai, baina hari batez lotua. Amona baten bilobarri transmititzen dio tradizioa, eta ibilbide bat dago eguberriaren antzinako ikuspegi paganotik, kristaura (Olentzero bitartekari dela), eta atea zabalik uzten da ikuspegi kristautik laiko batera igarotzeko. Sinboloen irakurketa bat dago oinarrian, eta interpretazio-proposamen bat, beste bide batzuk itxi gabe. Iturriei dagokienez, euskal tradizioko ohi-

tura eta istorioak daude, iturri askotatik hartuak (amaieran, bibliografía bat jarri da).

**Hainbat ataletan banatua dago liburuak. Zein dira atal horiek? Zer kontaktzen da bakoitzean?**

Antzinako ohitura animistarekin hasten da; landare, animalia, izadiko osagaiak..., zeltiarren edo erromatarren tradizioan ezagunak bazuk. Izadiaren erritmoen interpretazio mitologikoa dela esan genezake. Horretan guztian izugarri erakarri nau uraren zikloak, esate baterako.

Gero, euskal tradizioak Olentze-

roren irudia erabili du tradizio paganotik kristautasunera igarotzea sinbolizatzen. Oso irudi landua da, eta argi azaltzen du orduan gertatu zen mentalitate-aldaketa sakona.

Guk txikitik jaso dugun tradizio kristaua dator gero, eta, azkenik, eguberria bizitzeko proposamen laiko bat. Azken batean, izadiaren erritmorik biltzeko gonbidapen ireki bat izan nahi du.

**Haur baten ikuspegitik kontaktzen da istorioa; amona du bidelagun haurrak.**

Lizardik erabili zuen irudia hartuta, amona da tradizioaren sinbolo, eta biloba tradizio hori jaso eta

eguneratzen duena. Proposamena ez da tradizioa gurtzea eta hari leial izatea, hura eza gutzeko gonbidapen bat baizik, berez eza gutzea merezi duelako, berez interesgarria delako, berez gozagarria delako. Tradizioaren ikuspegi idealizatutik harago joateko gonbidapen bat dago oinarrian.

**Zer transmititu nahi duzu? Zein da liburukotearen helburua?**

Nik gozatu egin dut arakatzeko eta bidea osatzen ibili naizen bitartean, ikasiz gozatu dut. Horixe bera transmititu nahi nuke.

**Zure mezua transmititzeko, Elena Odriozolaren**

**laguntza izan duzu. Zer esango zenuke haren lanari buruz? Gustura zaude aukeraketarekin?**

Nik uste irudien eta liburuaren material idatzien arteko ezkontza bat gertatu dela, eta horrek osatzen duela mezua; batez ere, mezu estetiko bat, gauzei, pertsonari eta izadiari begiratzeko modu bat. Alegia, Elenaren lana ez da nik osatutako mezuaren laguntzaile, baizik eta testua eta irudia biak dira mezu osatzaile. Irudiez gainera, liburuaren diseinua ere mezu horren bideratzaile da; «jaso eta goza» da mezua, laburbilduta.

